

Ezker tarren gorabeherak Frantzian

Irakurleak ongi dakienez, Hegoaldean ezker tar ageririk ez da, eta orainoz ezin izan daiteke.

Hori dela-ta, izkutatua eta hitz-dika ari diren ezker tarren arteko gorabeherak, oso ilun daude. Eta ideilunpe horretan aisa lerratzen da asko elkarren eskomikura.

Kapitalismoaren barruko askatasunak funtsean zer diren berriro salatu beharrik gabe ere argi gogortzen dira joeren arteko eztabaidak eta liskarrak Frantzian, esate baterako, Z. ARGIA argitaratzen den herrialdean baino.

CFDT eta CGT sindikatoek orain Frantzian daukaten eztabaida, horretara liferentzia sakon eta zabalaren oihartzuna delako, eredutzat har oaitake, eta argi iturri bikain gerta dakiguke.

CGT sindikatoa PCF (=Frantses Komunistak Alderdia)ren inguruan jotatu ohi da; eta honen «adar sindikalak» dela esaten da.

CFDT delakoa, berriz bere buruz bezala ari da eskuarki; eta, estra-tejiaren edo ideien mailan PS (=Sozialista Alderdia) edo PSU (=Sozialista Alderdi Batua)ren antzera mintzatzen badira haren zuzendariak, ez dago inolako morrosintanik. CFDT sindikatoa ez da inoren «adar sindikalak».

Desberdintasun honetxe sortu du, hain zuzen, bi frantses sindikato nagusien arteko azken eztabaida bizia. Edmond Maire CFDT-aren izenean mintzatuz, PCF-arekiko CGT-aren morrosintan salatu du; eta, oporretan, alokairu-kontuetan eta gainerako arazoetan, CGT-a PCF-aren aginduz areago arduratzen dela esan du, lan-arazo zehatzek ikutzen dituzten langileen mementoko nahiaz eta beharrez baino.

«Beti ere badago —esan du Mairek— eta zalantzan jar ezin daitekeen eran, hizkeraz, agerpeidez eta jokabidez, bateratasun eta kidetasun osoa eta etengabea CGT-aren eta PCF-aren artean».

Edmond Mairek eta honen laguriek ez dute CGT-aren menpetasun hori onartzen: nahiz sindikalismoaren politizatzea beharrezkotzat jo (politikatik at egin nahi den sindikalismoa, kapitalismoaren jokoan suntsitzen baita) Mairek eta CFDT-ak «eskuak libro» atxiki nahi dituzte. Langileriari, gonbarazio baterako, langile-bururakaren mundutasuna eta batasuna direla-ta, ez zaio beti komeni «kanpoko» arrazon politikoa ilunengatik opor bat, eman dezagun, ez egitea. Politika-gizonen akatsak eta maniobratu beharrak ezagunak direlako.

Urrunago joan da Maire, dena dela; eta Maiatzaren 30an irakurriko duen bere Txostenean, «kapitalismoa, sozialismoa eta sozialismo-rako bidez, CGT eta CFDT-aren artean DESBERDINTASUN FUNTSEZ-KOAK daudela» aitortu du garbiki.

CGT-aren izenean gordinki mintzatu da handik gutxitara Georges Séguy: «Horra hor gezur zaharra berriz ere gailen: alegia, CGT-a PC-aren menpean moztzen dela... «La Nation» (gaullista) eta «Le Figaro» (eskuindarra) aldizkariak aisa har dezakete beren lepora Txosten horren atal asko... Autojestiozko sozialismoa, bestetik, CFDT-ak haize-etara barreiatuz, joko kaltegarri bat egiten du; «autojestio» hitz horren atzean ideia ilun eta funsgabe asko dagoelako».

Hots, gauza ezaquna da Marx-ek eta marxistek federalismoa eta behetik gorako joerez duten mesfidantza. Kapitalismoaren menpeko langileak, diote, berez burgesa izan nahi du; eta burges ideietan zehar murgilduta bizi delako, kanpotik eta goitik (PC-tik) eman behar zaio burgeskeriari nagusitzeko teori-indarra. Marxistek ez dute herria sobera entzuten («las ideas dominantes en una sociedad son las ideas de la clase dominante»), eta ezin entzun dezakete. Marx behar dute entzun. Gisa zaie hau, herria alienaturik dagoelako. Gauza bera sindikatoan. Zergatik uka? CGT-aren jokabidea marxismo-leninismoaren ondorio bat da. «Il faut avoir le courage de ses opinions» esan ohi da frantsesez.

«L'état de lutte de la classe ouvrière, son activité ECONOMIQUE et son activité POLITIQUE, sont in-séparablement liées» (Marx, Critique du Programa de Gotha).

Eta Leninek ere bide beretik: «Dans les pays de liberté politique, la différence entre l'organisation syndicale et l'organisation politique est parfaitement claire... Les rapports entre las deux peuvent être plus ou moins étroits, complexes, etc.» Eta argitzapen gisa, ohar hau egiten: «Ils doivent être à notre avis LE PLUS ETROITS ET LE MOINS COMPLEXES POSSIBLE» (Lenin, Que faire, 126 orr.)

Séguyk ukatu egin du, ordea; eta CGT-a PCF-arekin loturik doala esate «antikomunismo-tzat jo du. Zergatik?

CFDT-aren Zuzendaritzak ez du bere arropatua batera luzatu: «CFDT osoak batera CGT eta PCF-aren jokabideen artean FUNTSEZ-KO BATASUNA aurkiturik, esan egin behar du. Baina gure jokabide hau antikomunismotzat joaz, eta eskuindarren jokoak egiten dugula salatuz, gauza bat baizik ez du oihukatzen CGT-ak: bere ustez ez dagoela egia bakar bat baizik: berea. Iritzi hauxe ontzat ematen ez duena, ETSAIAREN ALDERDIAN omen dago, besterik gabe eta ezin bestean. Ideia hori eta CFDT-arena gutzit daude elkarrietarik urrun; zeren-eta gure ustez ezker tarren eta sozialista indarren batasunak, hain zuzen, JOERA DESBERDINEN aitorna, zainkatzotzat hartzea eta denekiko errespetua baititu oinarri».

CFDT-aren XXXVI. Biltzar Nagusia, horrela, bi sindikalen arteko desberdintasun eta eztabaida giroan irekiko da etzi Nantes-en.

Sozialista ezker tar, hitz batez, zaiturik dago Frantzian. Alde bategatik CGT eta PCF daude, komunista alegia; eta bestetik, «grosso modo» jakina, CFDT sindikatoa eta PS/PSU sozialista alderdiak. Erdibeketa hau, bestalde, ez da Frantzian bakarrik gertatzen.

Beti bezain nabarmenki, beraz, bi taldetan zaiturik agertzen da ezker tar. Batean komunista eta antzekoak daude: marxismo-leninismoa gidari, ideietan batasuna, zentralismoa ekonomian eta politikan; eta beste gainerakoak: ekonomian sozialismoa eta politikan pluralismoa (joera desberdinak ontzat), federalismoa, eta maila gutzietan autojestioa gidari (eta ez Partidu bakarra).

Gure artean berezketak horixe gertatzea, beraz, EZ DA BATERE HARRIGARRIA; eta zentzurik ez du gure arteko desberdintasunak erdal jukurien eta azpikerien frutu gisa BETI azaldu nahiaik.

Gure artean mila maniobra, maluzkeria eta zinkieria dagoela gauza segurua da; baina gure artean, era berean, marxista-leninistek osatua multzo bat, eta «socialistek osatua».



Edmond Maire jauna Nantes-en

Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurreerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikai Ongarri ta abonoak Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratze

Baserrri, lun-tronak ta abar Torelavalgo'ko Perira joen etorriak

Baserriaren alde

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserri tar burutsuak, Berebiziko aragi pilflak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pensuak.

FANDERIA ERRETERI

to-gestionnaires» edo «socialista humanista» delakoak osatua beste multzo bat, piskanaka oratzen ari direla, bestea bezain segurua da.

Gure arteko istiluk aztertzean, beraz, hau gutzita behar da kontutan hartu. Sozialista bakoitzak, Frantzian, Japonen, Chilen eta Bretañan bezala, bere hautua egin behar du ausarki; eta gero, bigarren taldeko baldin bada bederen, beste taldekoen BESTETASUN FUNTSEZ-KOAN sartu ondoren (eta honen arabera jokatzu) aztertu eta borobildu behar du bere bidea geroari buruz.

CFDT-a beraz, ez da batera «antikomunismoan» ari, ene ustez: kapitalismoaren kontrako burrukan esku esku ari da egunero. CGT-arekin. Baina CFDT-a bere buruaren jabe da.

Honetatik heldu da, bere Agian CEDT-ko zuzendariak dioten bezala, komunistek beren bidea baizik ez onartzetik, besteak «etsaien jokoan ari» ikusi beharra. Mundua GUZTIAN (eta honen karkoa marxismo-leninismoan datza, eta ez mar-

xisten izakeran) PC-aren aginduak betetzen ez dituen «pequeño burgués» da.

Itsukeria honek ondorio txit larriak izan ditzake halako batez; ezen ahal izanen gero (agintez gero, alegia) «sozialismoaren zerbitzutan» burgeskeriaren aztarnak ere erazul behar baitira, eta «klase-etsaiaren jokoan ari» direnak isilarazi... Hala izan da orain arte: egia BAKAR BAT izanik, alderdi BAKAR BAT eta sindikato BAKAR BAT aski. Marxista-leninistena, jakina!

Alderantziz ada gauza bera, eta hau oso inportantea da.

Mundua zuri beltz ikusten delarik, badago besterik; ezen NOR EZ DA gaur Frantzian «antikomunismoan» ari, PC-ren ustez? PC-aren erabakiak eta proposamenduak BETETZEN DITUENA.

Ezagupide ezin funtsezkoago hau gidari, eta «otsoak otsozirik jaten ez duela» kontutan hartuta, argi argisua izan dezakete gure ilunpe zailean argi bila etsiturik ari direnek.

LARRESORO

C.E.D.T.-ren 36-garren Biltzarra

ERAKUNDEAREN ALDE

Lau urte igaro dira iraultza berriaren lehen agerpenak Parisen zabaldu zirenetik. Iraultza gogo berri horrek zalantzan jarri zituen langileriaren erakunde eta jokabide zaharrak.

Gerra ondorenean, ezkerreko Alderdiak eta Sindikatoak kapitalismoaren sareetan erori omen dira eta honen aurrerapenaren gupril egozki bihurtu. Hoiaren artean C.F.D.T. izan da ekinza berriei eta kezka berriei erantzun nahirik gehien bat sailatu den «erakunde». Berak giroan jarri ditu «autogestio» hitza eta baita ere aske utzi ditu bere eragileak errebindikazio «cualitativo»-ak era ziztaten eta molde berriko ekin-tzak frogatzen.

Aurreko Biltzarrean Sozialismo-runtz abiatzeko, Erakundeak hartu beharko zituen bideak aztertu zituelarik, esperantza haundia zegoen horaingo honetan ere politika orokor baten hildotatik azterketak joango zirelakoan. Gauzak, ordea, ez dira hala izan. Erakundea zaintzea eta ezker ezkerrekoen zipristinetatik busti gabe gelditzea izan dira azken Biltzar Nagusi honetako elburuak. Beraz, erakundearen zuzendarien elburuak bete egin dira.

Jokabide hau sindikatoen eginkizuna eta elkartzeko politikoaren arazoa aztertzerakoan argi nabarmendu da.

LANTEGI BORROKAZ

E. Maire idazkari nagusiak esan duenez langile organizatua izan dira, eta dira, langile borroka eraman dituztenak eta hoiak dira ekin-tzak eta elkarizketak zuzendu behar dituztenak. Langile organizatua hoiak sindikalistak berak dira. Hori besterik ez da horainartean sindikato zaharrenek esan dutena.

Hala ere C.F.D.T. izeneko erakundeak beste era bateko jokabide bat frogatzen ari zen. Jokabide berri horretan langileen Batzar Nagusia zen azkeneko erabakia hartu behar zuena. Sindikalistek informazio zehatza eta ekin-tzarako bideak proposatzen ahalagindu behar zuten. Jokabide horretan sindikalismoak bere eginkizuna betetzen zuen eta bide batez langileen tarte hartzea bikoitzatza egiten zen.

Baina, non bukatze nda sindikatoaren eginkizuna eta non hasten da langileen batzar nagusiarena? Nola eratu langileak berak izendatutako huelga-batzordea? Galdera hauek ez dira egin Biltzar Nagusi honetan eta gauza hoiel zeharka emandako erantzunak delegatuak lantegietan

emandako borroken aipamenik egin gabe agertu dira.

Lantegi batean larrialdi bat sortzen denean langileen batzar nagusiak huelga-batzorde bat aukeratzaren duenean, sindikato sekzioaren ahalmena gaitzeko arriskua ikusi dute C.F.D.T.-ko zuzendari taldeak. Horretarako troksisten teoria agertu dute; «izan ere nola esango dugu, troksistekin batera, sindikatoak atzerakaldi gerala eta gure eginkizuna galdu egiten dela langile masak arazoak bere eskutan hartzen duenean... Utikan horrelako txorakeririk!

Egia da huelga-batzorde bat talde amesleri baten esku eror daitekeela baina horrek ez zuen galazari behar sindikal sekzio bat eta langileak zuzenean aukeratutako batzorde baten arloan sortu leizken gorabeherak bildurrik gabe aztertzeko. Sindikatu gabe daudenak ugari diretarik, berak izaten dira batzordeak zuzen zuzenean aukeratzaren dituztenak eta sindikalistek hoiak denak baztertzen badituzte errexago joango dira iraultza utopikoan amets sailletara.

Araozak bere arriskua badu, Sindikalista batek esaten zuten bezala ez dago «cheque» zuri bat sindikal sekzioari ematerik eta hoiaren eskutena zuzentzea osoa uzterik. Lanaren erakundea jerarki utsez beterik dago. Eskolak, familiak eta herri ginteak jerarki horretaz jantziarik dauden bezala. Guk huelga askoetan demokrazi bide berria aukeratu dugu eta langile jaso dute sindikatoaren txartela lehen aldiz. Zergatik, beraz, bide hau aukeratu dugunok gure Erakunde puskatzen ari gerala esan da.

Ez dago bestetik, langile guziak sindikatuaren sartuko direla pentsatzerik. Hala ere, Sindikatoaren Biltzar Nagusi honetara beste jokabide bat nagusitu da. Lantegi batean Batzarrera prestatzen omen diren langileak sindikatoko laguntzailek izaten omen dira eta delegaduen asmoak onartzen dituztenak ez omen dira delegaduk bakarrik izaten baizik eta langitzaile guziak.

C.F.D.T.ren elburua ez da «vanguardiar» bat eratzea, langile denak Erakundearen sartzea baizik. Hala, erakunde barruan eziko da langilea gizarte berri bat eraikitzeko. Bide honek ez du ados egotarik Frantziako ezkerrek azkeneko auteskundetarako aurkeztu duen egitarau batu horrekin.

Baina C.F.D.T.k politikoa sailari emandako erantzuna beste bate baterako utziko da.